



ETXARRI ARANAZKO UDALA

Kale Nagusia 10 (KP 31820)

Tef. 948460004

udala@etxarriaranatz.eus

www.etxarriaranatz.eus

EDIKTUA

HERRIKO ERAIKUNTZEN ZAHARBERRITZE ETA APAINKETA ETA BESTELAKO OBRETARAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA. BEHIN BETIKO ONESPENA

Udalak, 2018ko apirilaren 11an, osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen “Herriko eraikuntzen zaharberritze eta apainketa eta bestelako obretarako laguntzak arautzen dituen ordenantza”.

Erabaki hori 2018ko 71. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 13an, eta handik aurrera jendaurrean egoteko hogeita hamar egun baliouduneko epea iragan da inork aurkeztu gabe erreklamazio, kexa edo oharrik haren kontra. Beraz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. eta 326. artikuluekin bat, hasierako onespena behin betikoa bilakatu da, eta hortaz Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen da “Herriko eraikuntzen zaharberritze eta apainketa eta bestelako obretarako laguntzak arautzen dituen ordenantza”.

Etxarri Aranatz 2018ko maiatzaren 29an
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar

